

EUSKAL ESPERIENTZIA ZIENTZIA ZABALKUNDEAN 2018

Ekainaren 14, Carlos Santamaria Zentroa

Pedro Miguel Etxenikereren harrera hitzak.

Mila esker Agustin Erkiziari harrera hitz hauengatik.

Ohore handia da niretzako Zientziaren Komunikazioa eta dibulgazioa ardatz dituen horrelako elkarguneari hasiera ematea.

Zientzia, batez ere, sormena da. Baita komunikazioa ere. Komunitate zientifikoari zuzendutako komunikazioa, ezaguera zientifikoa zabaldu ahal izan dadin, baita gizarteari zuzendutako komunikazioa ere. Zer egiten dugun, egiten duguna zergatik egiten dugun eta egiten dugunak zertarako balio duen azaldu behar zaio gizarteari.

Bestalde, zientifikoki informatua dagoen gizartea kultuagoa da eta, beraz, askeagoa. Ezagutzak gizartea intereseko taldeen manipulaziotik babesten du. Ezagutzari esker etorkizuna itxuratuko duten auziez erabaki ahal izango dugu.

Zientifikoki informatua izatea zertan datza? Hiru ideia nagusi hauetan:

(i) Lehenengo eta behin, gizarteak ezagutu behar dituen ideia nagusiak ez dautza xehetasun teknikoetan. Esate baterako, grabitazioa, atomoa eta elektroia zer diren jakin behar dugu. Zer da handiagoa? Atomoa ala elektroia? Bakterioak eta birusak zer diren jakin behar dugu. Antibiotikoek zeini egiten diote eraso? Bakterioei ala birusei?

(ii) Bigarrenez, aurrean duguna zientifikoa den ala ez bereizten jakin behar dugu. Newton-en grabitazioa, adibidez, zientifikoa da; baina homeopatia ez da zientifikoa.

(iii) Azkenik, zientziaren garapenaren ondorioak zeintzuk diren jakin behar dugu. Zientziak ekonomian, politikan eta eguneroko bizitzan nola eragiten duen jakin behar dugu. Zientzian gehien inbertitzen dutenak gizarte aberatsenak dira. Gizarte horiek ez dute zientzian inbertitzen aberatsak direlako. Alderantziz, gizarte horiek aberatsak dira urteetan zehar zientzian inbertitu dutelako.

Helburu garrantzitsuak dira hauek. Horregatik eskerrak eman nahi dizkizuet sinesten duzuelako tinko lanean hari zaretenoi. Zientzia gizarteari komunikatzeko egiten ari zareten ahaleginak balio handia du.

Mila esker eta bi egun atsegin eta emankorrak pasa ditzazuela.